

Donostiako Musika Hamabostaldia

Betetze Adierazleak 2018

Donostiako Musika Hamabostaldia S.A.-k helburu programatiko eta artistiko batzuk ezarriak zituen 2018ko Urteko Planean. Planean zehaztutako helburuak eta haien betetze-maila dokumentu honen bidez egiaztatu dira.

Arte-eskaintza

- Opera antzeztua mantentzea: abuztuaren 11n eta 13an operaren bi funtzio antzeztu eskaini ziren, Hamabostaldiak, Buenos Airesko Teatro Colón-ek eta San Lorenzo de El Escorial-eko Jaialdiak elkarlanean sustatutako ekoizpen batean.
- Jaialdiaren abesbatza-izaera azpimarratzea. 79. edizioan, abesbatza hauek hartu dute parte: Donostiako Orfeoia, Andra Mari Abesbatza, Easo Abesbatza, Hondore Abesbatza, Easo Eskolania, Araoz Gazte Abesbatza, Coro Haydn dels Baus (La Fura dels Baus-en "Kreazioa"-rako berariaz sortua) eta Landarbaso Abesbatza. Kukai dantza-taldeak Arantzazuko Santutegian eskainitako "Adio" ikuskizunean hartu zuen parte Landarbaso Abesbatzak.
- Errepertorioa zabaltea. Horretarako, ganbera-musikara eskainitako ziklo bat sartu zen programan, bigarren urtez jarraian, "Ostegun Musikalak San Telmon" izenburupean. Zikloa osatzen zuten hiru emanaldiek oso harrera ona izan zuen jende artean.

Bertako artisten erakusleihu

- Gure inguruko artistak nazioarteko izaerako proiektuetan parte hartzera bultzatzea: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Andra Mari Abesbatza, Alicia Amo sopranoa eta Clara Mouriz mezzosopranoa Christian Zacharias zuzendari

ospetsuaren esanetara aritu ziren; Arantza Ezenarro sopranoak, Easo Abesbatzak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak “La Italiana en Argel” operan hartu zuten parte; eta Carlos Mena-k, Elena Martínez de Murguía-k, Thierry Biscary-k, Eñaut Elorrietak eta Easo Eskolania eta Araoz Gazte Abesbatza abesbatzek, besteak beste, Katia eta Marielle Labeque ahizpen “Amoria” ikuskizunean hartu zuten parte.

- Donostiako Orfeoia, Hamabostaldiarekin urtero duen hitzordua huts egin gabe, Budapesteko Festival Orchestra-rekin eta Koloniako Orkestra Sinfonikoarekin batera aritu zen oraingo honetan; baita, bigarren kolaborazio batean, Luxenburgoko Orkestra Sinfoniakoarekin ere. Esparru horretan kokatzen da, baita ere, Donostiako Orfeoiaren eta Juanjo Mena eta BBC Philharmonic Orchestra-ren arteko lankidetzak. Izan ere, Hamabostaldiarekin egindako hitzarmen bati esker, Orfeoiak Londresko Proms kontzertuetan hartu zuen parte, Beethovenen “Fidelio” operan kantatuz, Donostiara joan baino lehen.
- Dagoeneko ohitura denez, gure inguruko artistek protagonismo berezia izan zuten programazioan, euskal talde eta artisten presentzia nabarmena izan baitzen. Hala, jaialdiko ia ziklo guztietan hartu zuten parte euskal artistek. Guztira, 56 ekitaldi/kontzertutan izan dira protagonista edo partaide.
- Era beran, aipatzekoak dira Kukai Dantza taldeak Arantzazun eskainitako “Adio” ikuskizuna, dantza, musika eta poesia konbinatzen dituen, edota Katia eta Marielle Labeque ahizpen “Amoria”, euskal musikak XVI. mendetik gaur eguneraino egin duen ibilbidearen omenaldi modura planteatua.

Gazteak eta Hamabostaldia

- Artista gazteek presentzia zabala eta nabarmena izan zuten berriro. Guztira, hamasei kontzertutan hartu zuten parte musika klasikoaren kimu berriek, Inaugurazio Egunean, Kursaal Auditorioan, Haurren Egunean, Gazte Interpreten Zikloan eta Musikeler-en eskainitako emanaldien artean banatuta.
- Hurrei zuzendutako eskaintza zabaltzea: 2018ko edizioan, Hamabostaldiak sendotu egin zuen hurrei eskainitako programazioa. Donostiako ohiko eskaintzaz gainera, Haurren Hamabostaldi Ibiltariak beste zortzi hitzordu jarri zituen hiriburutik kanpo, Zumaian, Getarian, Mutrikun, Irunen, Ordizian eta Deban.
- Urteroko hitzordua dugun Haurren Egunaren barruan, protagonismo berezia izan zuen “Itsasotik eskolara” ikuskizunak, Calmel-en “Los cantos del mar” obraren antzezpenak; baita “La maestra de escuela de Telemann” obrak ere, Easo Eskolaniaren eta Araoz Gaztetxo Abesbatzaren eskutik eskainiak. Bi lan horiek Musika Hamabostaldiak agindutako eta material birziklatuekin egindako

eszenaratze berri baten bitartez aurkeztu ziren, Musika Hamabostaldi Berdearen esparruan. Ikuskizunak bertaratu ziren guztiei gozarazi zien eta harrera ona izan zuen.

- 79. edizioan, 306 sarrera saldu ziren “Ordu Gaztea” kanpainaren bidez. Kanpainak, 30 urtetik beherakoei zuzenduak, sarrerak 3 euroko prezioan eskuratzeko aukera eskaintzen du.
- #SOLasean: ekimen honek jende berria erakartzea du helburu, eta, guztira, 32 lagun bilarazi zituen, bere gazte bertsioan, joan den urteko edizioan. 30 eta 35 urte bitarteko beste 32 lagun lehen aldiz agertu ziren Hamabostaldiko kontzertu batera. Horrek baikor sentiarazten gaitu, Hamabostaldiko publikoaren belaunaldi-txandaketari dagokionez, jaialdiak jendarte berrietara zabaltzen segitzen duela egiaztatu ahal izan baitugu.

Hamabostaldi Ibiltaria

- Ohiko plazak sendotzea: programan ohikoak diren udalerrietara heldu ziren berriro Hamabostaldiko kontzertuak: Zumaia, Hondarribia, Mutriku, Getaria, Arantzazuko Santutegia, Ataun, Usurbil, Tolosa, Hernani, Azpeitia, Azkoitia, Deba, Leireko monasterioa eta Senpere. Iparraldeko herri horretan, bi kontzertu programatu ziren, Jordi Savall-ek eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak protagonizatuak eta zein baino zein arrakastatsuagoak. Bestalde, Arabako Hamabostaldiaren barruan, bost hitzordu musikal jarri ziren, beste hainbeste herritan. Aipagarriak dira, halaber, Ordizian abuztuaren 29an programatutako ekitaldiak, hiribilduaren 750. urteurrenaren kariaz antolatutakoak.

Prestakuntza-ekimena

- Prestakuntza-eskaintza zabaltzea. Organo Erromantikoaren Nazioarteko Ikastaroa 35. ediziora iritsi zen, eta Ahozko Teknikaren Ikastaroak zortzigarren edizioa ospatu zuen.
- Gainera, hiru eskola magistral eskaini ziren, ospe handiko artisten eskutik.

Musika konprometitua

- GKE edo irabazi-asmorik gabeko Elkartek batekiko lotura mantentzea. Antzinako Musika Zikloaren bidez, dohaintza batzuk bildu ziren, eta Santa Teresa Komentuan, hau da, zikloaren egoitzan, egitekoak diren hobekuntza-lanetara bideratu ziren.
- Hamabostaldi Solidarioa sendotzea: ohikoa den bezala, Inaugurazio Egunean hiru kontzertu eskaini ziren beste hainbeste zahar-egoitzetan.
- Langabetuentzako tarifa berezia finkatzea: aurreko edizioan, langabetuei zuzendutako 66 sarrera saldu ziren, Kursaal Auditorian eta Victoria Eugenia Antzokian eskainitako kontzertuetarako.
- Hamabostaldi Berdea programa mantentzea. Musika Hamabostaldiaren antolaketak ingurumena zaintzeko neurri batzuk hartu zituen 2018an bere eguneroko prozesu eta prozeduretan, erabilitako baliabide natural eta ekonomikoen eraginkortasuna hobetzen eta haien ingurumen-inpaktua minimizatzen laguntzearen. Neurri horiek aldaketak eragin zituzten bai paperaren, uraren eta energiaren erabileran, bai sortutako zarata mailetan eta hondakin kopuruetan, bai eta garraiabideen erabilera-ohituretan ere.